

## BASES “Eiken-EiTB NEXT STATION”

### 1.- Parte-hartzaileak

1. Adinez nagusia den zeinahi pertsona fisikok aurkeztu ahal izango du bere proiektua, izan profesionala zein ez. Era berean, zeinahi enpresak ere aurkeztu ahal izango ditu bere proiektuak.
2. Pertsona edo enpresa parte-hartzaileek euren izenean edo beste pertsona edo enpresa batzuekin elkarlanean aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak; betiere, baldin eta Oinarri hauetan aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte denek.
3. Ideiak elkarlanean aurkeztuz gero, Antolakuntzaren aurrean ordezkari eta solaskide moduan ondorio guztietarako jardungo duen pertsona izendatu beharko da, eta haren erabakiak eta jardunak lotesleak izango dira gainerako laguntzaileentzat.
4. Pertsona edo/eta enpresa parte-hartzaile bakoitzak nahi adina bideo aurkeztu ahal izango ditu.

### 2.- Arau orokorrak eta proiektuek bete beharreko baldintzak

1. Lehenengo fasean parte hartzeko, minutu bateko iraupena izango duen bideo bat bidali beharko diguzu, eta, bertan, telesail bat euskaraz eta 4Kn sortzeari buruz duzun ideia kontatu beharko diguzu. Arreta berezia jarriko diogu Storytellingari. Gainera, gure webgunean ([www.nextstation.club](http://www.nextstation.club)) dagoen formularioa bidali behar da, eskatzen diren informazioak bete ondoren.

Instagram: proiektuaren instagramera zuzeneko mezua bidalita: @nextstationclub. Behin argitaratuta, partekatu egin beharko duzu, eta @nextstationclub-i jakinarazi, instagram orrialderako lotura sortzeko. Hala egin ezean, zurea ez da ofizialki lehiaketako ideia bat izango.

Facebook: proiektuaren fanpagera zuzeneko mezua bidalita: @NextStation.club. Behin argitaratuta, partekatu egin beharko duzu, eta @NextStation.club-i jakinarazi, fanpagerako lotura sortzeko. Hala egin ezean, zurea ez da ofizialki lehiaketako ideia bat izango.

2. Bideoak euskaraz aurkeztu beharko dira.
3. Parte-hartzaileek euren erabateko erantzukizunpean jarduten dute eta Next Station proiektuan parte hartze hutsarekin, honako hauek bermatzen dizkiote Antolakuntzari:

- Aurkeztutako ideia-aren legezko egileak direla, eta hala badagokio, baita proiektuan parte hartzeko Antolakuntzari edozein euskarri edo formatutan (idatziz, ikus-entzunezkoa, etab.) ideiarekin lotuta aurkezten dioten dokumentazio edo/eta informazio guztiarena ere.
- Ideia oso-osorik argitaragabea eta originala dela.
- Ideia-aren eta aurkezten duten dokumentazio, material edo/eta informazio guztiaren gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak dituztela legez (egile eskubideak), "Next Station"-ek berezkoak dituen helburuetarako eta testuinguru horretan erabiltzea galaraz, oztopa edo muga dezakeen inolako lege edo kontratu mugarik gabe (aurkezten diren ikus-entzunezko euskarriek izan ditzaketen musika eta irudiak barne).
- "Next Station"-en parte hartzeak ez dituela urratzen hirugarrenen eskubideak (intimitate eskubidea, ohore eskubidea eta aurkezten diren ikus-entzunezko euskarrietan ager daitezkeen pertsonen irudia bera barne), eta ez dituela urratzen isilpekotasun konpromisoak edo beste era bateko konpromisoak ere.

Horrenbestez, "Next Station"-ek ez du bere erantzukizunpean hartuko zeinahi parte-hartzailek egindako arau hauste horietatik erator daitezkeen edozein erantzukizun mota, eta horrenbestez, horiek guztietatik salbuetsita geratuko da. Parte-hartzaileak, "Next Station"-en parte hartzeagatik, derrigortuta daude Antolakuntza kaltegabe uztera, arestian aipatutako bermeak ez betetzeagatik ustekabeen eska litekeen zeinahi erantzukizun, erreklamazio, zigor edo/eta kalte-ordain motaren aurrean, edo eratorritako zeinahi kalte edo/eta okerren aurrean.

Dena den, "Next Station"-ek jakingo balu parte-hartzailearen batek ez dituela bete arestian aipatutako bermeak, parte-hartzaile hori automatikoki kanporatuko litzateke, indarrean dagoen araudiarekin bat etorruta eska diezaioketen edo onartzea dagokion beste zeinahi erantzukizuni kalterik eragin gabe. Gainera, arau hausleak berenberegiz ezarritako ordainketa irabaziko balu, automatikoki itzuli egin beharko litzuzke "Next Station"-en eskutik jasotako zenbateko guztiak, bestela ere eska diezaioketen kalte eta okerre kalterik eragin gabe.

### 3.- Proiektuak aukeratzea eta sariak

3.1. Aurkeztutako bideo guztien artetik 20 ideia aukeratuko dira, Next Stationerako sortutako algoritmoa kontuan hartuta.

3.2. Lehenengo erronda igaro ostean, aukeratutako 5 ideiak tailerretara eramango dira. Tailerrak, hain zuzen, -BBF- Bilbo Berrikuntza Faktorian (Uribitarte kalea, 6, 48001 Bilbo, Bizkaia) egingo dira. 5 saio izango dira, eta horietan bilatuko den helburua da, zehazki, ideia garatzea, eredu eratzeko eta nahiko bideragarria izango den produktu bat sortzea. Tailer horiek, bestalde, Luis Berasategik sortutako [Next Station metodologian](#) oinarrituta egingo dira; [Mondragón Unibertsitateko](#) eta [MIKeko](#)

kidea da Berasategi. Material guztia berrikusi eta 3 hautagaiak aukeratu ondoren argitaratuko da metodologiarako egunak zein izango diren. (Antolakuntzari ez dagozkion arrazoiengatik, egunak eta egingo den tokia alda litezke; beraz, Antolakuntzak ez du bere bizkar hartuko gertakari horrek parte-hartzaileei eragin diezazkiekeen ondorioen erantzukizuna. Dena den, ahalik eta bizkorren emango da aldaketa guztien berri).

3.3. Tailerrak amaitzen, 400 €-ko saria emango zaio saioen ondorioz nahiko bideragarria den produktu bat erakuts dezakeen proiektu aukeratu bakoitzari. Aukeratutako proiektu guztiek igaro beharko dute, baina, adituen azken balioespena. Eta ez litzateke baztertu behar etxe edo ekoiztetxe profesional batek ideia horiek erreproduzi ditzan dagoen aukera ere. Kasu horretan, Next Stationek ordezkatuko litzuzke.

3.4. Tailerrek ez diete inolako kosturik ekarriko hautatuei. Era berean, EIKEN-EITB Next Stationek laguntza poltsa bat izango du, hautatuek izango dituzten ostatu, gosari, bazkari eta afari gastuetarako. Parte-hartzaileek arestian aipatutako gastuen artean ez dagoen besteren bat egiten badute, euren kontura izango da.

3.5. Aditu taldearen gogoetak eta bozketak isilpekoak izango dira, eta euren erabakiak, behin betikoak eta apelaezinak.

3.6. Lehenengo egonaldi hori amaitzean, produktu irabazlea hautatuko da. Produktu horrek bere telesaila geratu ahalko du *koprodukzio kontratuan* beren-beregi adostutako baldintzetan. Kontratu hori, data egokian idatziko da.

#### 4.- Jabetza intelektualeko eskubideak

4.1. “Next Station”-en parte hartze hutsagatik, parte-hartzaileek Antolakuntzari lagako dizkiote, denbora mugagabea eta inolako lurralde mugarik gabe, aurkeztutako proiektuaren eta “Next Station”-en parte hartu bitartean zeinahi euskarri edo/eta formatutan emandako edo garatutako dokumentu zein material guztien jabetza intelektualeko eskubide denak (erreprodukzioa, erakusketa, banaketa eta komunikazio publikoa). Egileak 500 €-tik gorako edozein salmentaren % 20 jasoko du, eta Next Stationek ordezkatuko du. Egile eskubideak, berriz, parte-hartzaileari dagozkio. Lagapen hori zentzurik zabalenean izango da, eta Antolakuntzak eskubidea izango du proiektua eta material guztiak “Next Station” proiektuaren testuinguruan eta haren helburuetarako erabiltzeko; betiere, Oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

4.2. Ekimenean parte hartuta, parte-hartzaileek espresuki baimena ematen dute, baldin eta aukeratuak badira, euren identifikazio datuak, bideoa eta Antolakuntzaren esku utzitako gainerako materialak, edo prozesuan garatu edo landu dituztenak, proiektuaren web orrian edo/eta beste zeinahi bitartekotan (Internet, TB, irratia, sare sozialak, etab.) zein euskarritan (idatziz, ikus-entzunezkoa, etab.) argitaratzeko; betiere, “Next Station”-ekin lotutako hedapen, publizitate eta sustapen jardueretarako.

4.3. Era berean, parte hartzeak berekin dakar “Next Station”-en esku uztea lanak entitate horren hedapen kanal guztien bitartez (lurreko telebista digitala, satelitea eta Internet) eman ahal izateko beharrezkoak diren komunikazio publiko eta erreproduzio eskubide guztiak.

4.4. Dena den, behin-behinean eta “Next Station”-en testuinguruan, Antolakuntzak proiektuari eta materialei eman diezaiekeen erabilerei buruz atal honetan arestian aurreikusitakoaz harago, parte-hartzaileek eurentzat gordeko dituzte proiektuaren eta emandako materialen gainean dagozkien jabetza intelektualeko eskubide guztiak.

## 5.- Isilpekotasuna

5.1. Antolakuntzak, Oinarriak betetzeko bermatzaile gisa jarduteaz gainera, dagokion isilpekotasuna gordetzeko eta Ekimen honen baitan eskura izan dituen proiektuak zein materialak Oinarrietan aurreikusitakoak ez diren beste helburu batzuetarako ez erabiltzeko konpromisoa hartzen du, bai eta bere esku dauden bitartean, Ekimenetik kanpoko hirugarrenek erabil edo zabal ditzaten galaraztekoa ere.

5.2. Dena den, “EIKEN-EiTB Next Station”-ek aurkeztutako ideiak edo eurekin edo sortzaileekin lotutako informazio zehatza web bidez iragarri behar badu (Interneteko zeinahi erabiltzailerentzat eskuragarri jarrita), Antolakuntzak ezin du hori kontrolatu, eta, horrenbestez, ez du bere bizkar hartuko “EIKEN-EiTB Next Station”-etik kanpoko hirugarrenek web orrian dauden material horiei, edo parte-hartzaileak bere borondatez sare sozialetan edo beste bitartekoren batean argitaratutako beste zeinahi informazio edo materialei, eman diezaieketen erabileraren erantzukizuna. Beraz, parte-hartzaileek badute informazioa eta egoera horretatik erator daitezkeen arriskuak onartzen dituzte, eta “Next Station” espresuki salbuesten dute horiekin lotutako zeinahi erantzukizunetik.

## 6.- Datuen babesa

6.1. Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, parte-hartzaileek “Next Station”-en parte hartzeko ematen dituzten datu pertsonalak “Next Station”-en jabetzako fitxategi batean sartuko dira (Uribitarte Pasealekua, 3, 48001 Bilbo, Bizkaia), eta Oinarri hauetan aurreikusitako helburuetarako eta irismenerako erabiliko dira; alegia, “Next Station”-en funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren jardunak kudeatzeko, koordinatzeko eta garatzeko (izen-emate prozesuak gauzatzea, parte-hartzaileekiko komunikazioak kudeatzea, jendearen bozketa zein epaimahaiaren aukera kudeatzea, bozketen emaitzak web orrian argitaratzea, aukeratutako ideien berri ematea, aukeratutako ideiekin tutoretza lana egitea tailerretan, etab.). Jardun horiek guztiak gauzatzeko, “Next Station”-en fase edo jardunetan parte hartzen duten entitate edo/eta pertsona kolaboratzaile guztiek parte-hartzaileen datu pertsonalak erabili ahal izango dituzte.

6.2. “Next Station”-en parte hartuz eta Oinarri hauek onartuz, parte-hartzaileak euren datuei emango zaien tratamenduaren jakitun dira, eta adierazitako baldintzetan horretarako baimena ematen dute. Era berean, jakitun dira “EIKEN-EiTB Next Station”-en aurrean egikari ditzaketela datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurka egiteko eskubideak.

6.3. Legean aurreikusitako kasuetan, datu pertsonalen titularrek euren datu pertsonaletara sartzeko, horiek zuzentzeko edo ezeztatzeko edo “Next Station”-ek emandako tratamenduari aurka egiteko eska dezakete, idatziz eta nortasuna adieraziz, “EIKEN-EiTB Next Station”-i zuzendutako idatzi baten bidez; bai Uribitarte Pasealekua, 3, 48001 Bilbo, Bizkaia helbidera bai posta elektronikoko honako helbide honetara bidaliz: [nexstationclub@gmail.com](mailto:nexstationclub@gmail.com).

6.4. Dena den, parte-hartzaileen erantzukizuna izango da emandako datu pertsonalak egiazkoak eta zehatzak izatea, eta horietan zeinahi aldaketa gertatuz gero, derrigortuta egongo dira Antolakuntzari jakinaraztera.

Oinarri hauen urraketa larritzat joko da, hain zuzen, datu pertsonal egiazko eta osotuak ez aurkeztea (hala behar izanez gero, “Next Station”-ek noiznahi egiazta ditzake). Eta urraketa horrek bere ondorioak izango ditu; hala nola eta besteak beste, parte-hartzailea kanporatzea, sariaren irabazkinik ez izatea edo saria “Next Station”-i itzultzea derrigortuta egotea.

## 7.- Beste xedapen batzuk

7.1. “EIKEN-EiTB Next Station”-en parte hartze hutsagatik, parte-hartzaileek erabat eta modu ezeztazinean onartu beharko dituzte honako Oinarri hauek, eta Antolakuntzak beretzat gordeko du Oinarriak betetzen ez dituen parte-hartzailea noiznahi kanporatzeko eta inolako ordainik gabe uzteko eskubidea.

7.2. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kasuak Antolakuntzak berak erabakiko ditu, nahierara.

7.3. Zeinahi zalantza edo argibide behar izanez gero, jarri harremanetan Antolakuntzarekin, [nexstationclub@gmail.com](mailto:nexstationclub@gmail.com) helbidearen edo Facebookeko <https://www.facebook.com/NextStation.club> fanpagearen bitartez. Komunikazio kanal hau erabilgarri egongo da proiektuak aurkezteko epea irekita dagoen bitartean. Antolakuntzak ez die erantzungo bide honetatik egiten ez diren kontsultei.

“Next Station”-ekin lotutako informazio guztia (Oinarri hauek barne) [www.nextstation.club](http://www.nextstation.club) helbidean kontsulta daiteke.